

**A.3.3. IPURUA****A.3.3. IPURUA**Azalera: 57.732 m²**I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak**

Area hau, Ipuruako merkatu zaharreko eraikinetik hasi eta Romualdo Galdós, Santaines eta Ipurua kaleetarainoko eta Elgetako errepiderainoko zona da.

Kirol ekipamendu handia duen zona honetan (igerileku irekiak, Kiroldegia, Ipuruako futbol zelaia eta eranskina), proposamen hauek egiten dira:

* Santaines komentuko eremua eraberritzea, erlijio eraikin hori ekipamendu gisa sendotuz eta area honetako gainerako azalera espazio librerako utziz, azken honetan aire zabaleko kirolak praktikatu ahal izan daitezen, gainerako instalazioen osagarri.

* Ipuruako futbol zelaiaren eranskinean lurpeko aparkaleku bat sortzea, zona honetan bertakozentzako aparkaleku bat eta ondoko ekipamenduei loturiko txandakako aparkaleku bat eskaintzeko.

Ekintza hauei esker, zona hau garrantzi handiko kirol konplexua bilakatuko da eta "Unbe"-ko instalazioak osatuko ditu.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1, O-AL-AO-2B eta 2C "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera nagusia, Ekipamendu erabilerarena da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.04. Artikulua.- Ekipamendu erabilera (3. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan zehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.